Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia

Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco

# EHUko IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ORDAINSARI OSAGARRIAK EBALUATZEKO MEMORIA

# III. DEIALDIA

**AURKIBIDEA**


Or.

1. **TESTUINGURUA** .......... **1**

2. **EBALUAZIO-PROZESUA** .......... **1**

**2.1. DEIALDIA ARGITARATZEA ETA ESKAERAK JASOTZEA** ...... **2**

**2.2. EBALUAZIO-BATZORDEAK** .......... **2**

**2.3. EBALUAZIOA** .......... **5**

**2.4. EBAZPENA** .......... **16**

**2.5. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** .......... **16**

**I. ERANSKINA: ARAUTEGIA** .......... **17**

## 1. TESTUINGURUA

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren (Uniqual) helburua da euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatu eta egiaztatzea, Europa eta nazioartea aintzat hartuta betiere. Bere estatutuetan agertzen den bezala, bai eta Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 24ko 3/2004 Legearen 34. artikuluan ere, UNIQUALen egitekoetako bat da irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-merituak ebaluatzea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak esleitzeko. Beraz, eta urriaren 17ko 209/2006 Dekretuak (EHAA, 2006ko urriak 31), Gizarte Kontseiluaren Deialdiak (EHAA, 2009ko abenduak 16) eta Ordainsari Osagarriak Ebaluatzeko Protokoloak (EHAA, 2008ko abenduak 17) ezarritakoari jarraituz, EHUko irakasle eta ikertzaileek aurkeztutako eskaerak ebaluatu ditu UNIQUALEK, osagarri horiek esleitze aldera. Tartean diren erakunde guztien helburua da eraginkortasun, efizientzia eta kalitatean oinarritutako sistema ezartzea, EHUko irakasle eta ikertzaileen irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-jarduera sustatu eta bultzatzeko.

## 2. EBALUAZIO-PROZESUA

EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak ebaluatzeko prozedura 209/2006 Dekretuak ezarritakoak arautzen du, eta honako urrats hauek ditu:



## 2.1. DEIALDIA ARGITARATZEA ETA ESKAERAK JASOTZEA.

Deialdia 2009ko abenduaren 16ko EHAAn (241 zb.) argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea 2009ko abenduaren 17an hasi zen, eta 2010eko otsailaren 17an bukatu. Deialdiaren epea amaituta, guztira 138 espediente jaso ziren UNIQUALen, EHUren Erregistro Orokorretan utzita.

2010eko otsail eta martxoan, UNIQUALek honako hauek egiaztatu zituen eskabide guztietan:

- Legez ezarritako aurretiazko betekizunak betetzen dituztela.
- Deialdian ezarritako baldintza formalak betetzen dituztela.

Ezarritako baldintzak betetzen ez baziren, interesdunari hamar eguneko epea eman zitzaion okerra zuzentzeko, horrela ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, 71. artikuluan.

Eskaerak egiaztatu ahala, sailkatu eta UNIQUALen egoitzan artxibatu ziren, bai aplikazio informatikoan, bai horretarako sortutako datu-basean.

## 2.2. EBALUAZIO-BATZORDEAK

UNIQUALen estatutuetan (138/2006 Dekretua, ekainaren 27koa) jasotzen denez, UNIQUALek aholkua eskatuko dio komunitate zientifikoari, eta, horretarako, Ebaluazio Batzordeak osatuko dira jakintza-arloka edo espezialitateka, edo ebaluazio-prozesuaren berezitasunen arabera. Ebaluazio Batzordeko kideak bi urterako izendatuko dira, eta ezingo dira berriz hautatu kargua uzten dutenetik bi urte igaro arte; hortaz, ordainsari osagarrien III. Deialdi honetan (93 zb. EHAA, 2010eko maiatzak 20) kide berriak izan dituzte Ebaluazio Batzordeek.

**2.1. taula.** Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordeko kideak.

| MEDIKUNTZA- ETA OSASUN-ZIENTZIEN BATZORDEA | | | |
|---|---|---|---|
| **Ebaluatzailea** | **Kategoria** | **Unibertsitatea** | **Jakintza-arloa** |
| José Guimón Ugartechea | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Psikiatria |
| Mª Concepción Iribar Ibabe | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Biokimika eta Biologia Molekularra |
| José Luis Pedraz Muñoz | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Farmazia eta Farmazi Teknologia |
| Inmaculada Guerricagoitia Marina | Unibertsitateko titularra | EHU | Giza-Anatomia eta Enbriologia |
| Luis Casis Sáenz | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Fisiologia |
| Jaime Merino Sánchez | Unibertsitateko katedraduna | Miguel Hernández Unibertsitatea | Medikuntza |
| Enrique Moreno González | Unibertsitateko katedraduna | Madrilgo Osasuneko Institutua | Kirurgia |

**2.2. taula.** Ezagutza Teknikoen Batzordeko kideak.

| EZAGUTZA TEKNIKOEN BATZORDEA | | | |
|---|---|---|---|
| **Ebaluatzailea** | **Kategoria** | **Unibertsitatea** | **Jakintza-arloa** |
| Magdalena Salazar Palma | Unibertsitateko katedraduna | Madrilgo Carlos III Unibertsitatea | Seinalearen Teoria eta Komunikazioak |
| Alfonso Carlosena García | Unibertsitateko katedraduna | Nafarroako Unibertsitate Publikoa | Seinalearen Teoria eta Komunikazioak |
| Amable Liñan Martínez | Unibertsitateko irakasle emeritua | Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa | Fluidoen Mekanika |
| Begoña Chiquinquirá Arrue Ullés | Unibertsitateko irakasle titularra | Sevillako Unibertsitatea | Sistemen Ingeniaritza eta Automatika |
| Rafael Avilés González | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Ingeniaritza Mekanikoa |
| José Francisco Cambra Ibáñez | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Ingeniaritza Kimikoa |
| María Inés Torres Barañano | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Lengoaiak eta Sistema Informatikoak |

**2.3. taula.** Zientzia Esperimentalen Batzordeko kideak.

| ZIENTZIA ESPERIMENTALEN BATZORDEA | | | |
|---|---|---|---|
| **Ebaluatzailea** | **Kategoria** | **Unibertsitatea** | **Jakintza-arloa** |
| Manuel Tello León | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Fisika |
| Consuelo Martínez López | Unibertsitateko katedraduna | Oviedo-ko Unibertsitatea | Algebra |
| Ángeles Delibes de Castro | Unibertsitateko irakasle titularra | Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa | Biokimika eta Biologia Molekularra |
| Miren Pilare Cajaraville Bereziartua | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Biologia Zelularra |
| Magdalena Aguiló Díaz | Unibertsitateko katedraduna | Rovira i Virgili Unibertsitatea | Kristalografia eta Mineralogia |
| Javier Bilbao Elorriaga | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Ingeniaritza Kimikoa |
| Manuel Hernández Córdoba | Unibertsitateko katedraduna | Murcia-ko Unibertsitatea | Kimika Analitikoa |

**2.4. taula.** Giza Zientzien Batzordeko kideak.

| GIZA ZIENTZIEN BATZORDEA | | | |
|---|---|---|---|
| **Ebaluatzailea** | **Kategoria** | **Unibertsitatea** | **Jakintza-arloa** |
| Beatriz Arizaga Bolumburu | Unibertsitateko katedraduna | Cantabria-ko Unibertsitatea | Erdi Aroaren Historia |
| Pilar García Mouton | Ikerketa-irakaslea | "Lengua Literatura y Antropología" Institutua | Gaztelania |
| Luis Castells Arreche | Ikerketa-irakaslea | EHU | Historia Garaikidea |
| Nicanor Ursua Lezaun | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Filosofia |
| Itziar Idiazabal Gorrotxategi | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Euskal Filologia |
| María Isabel Navarro Segura | Unibertsitateko katedraduna | La Laguna-ko Unibertsitatea | Artearen Historia |
| Domenec Corbella Llobet | Unibertsitateko katedraduna | Bartzelonako Unibertsitatea | Artea |

**2.5. taula.** Gizarte-, Lege- eta Ekonomia Zientzien Batzordeko kideak.

| GIZARTE-, LEGE- ETA EKONOMIA ZIENTZIEN BATZORDEA | | | |
|---|---|---|---|
| **Ebaluatzailea** | **Kategoria** | **Unibertsitatea** | **Jakintza-arloa** |
| Juan Ramón Cuadrado Roura | Unibertsitateko katedraduna | Alcala-ko Unibertsitatea | Ekonomia Aplikatua |
| Javier Díaz Noci | Unibertsitateko irakasle titularra | EHU (Universitat Pompeu Fabra) | Komunikazioa eta Kazetaritza |
| José Luis de la Cuesta Arzamendi | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Zuzenbide Penala |
| Ignacio Javier Alfaro Rocher | Unibertsitateko katedraduna | Valencia-ko Unibertsitatea | Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak |
| Maite Garaigordobil Landazabal | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Psikologia Hezkuntza |
| Carlos María Romeo Casabona | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Zuzenbide Penala |
| Carlota Puig Solé | Unibertsitateko katedraduna | Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa | Soziologia |
| Arturo Rodríguez Castellanos | Unibertsitateko katedraduna | EHU | Finantza Ekonomia eta Kontabilitatea |

## 2.3. EBALUAZIOA

Eskabideak batzordeka banatu ziren, eskatzaile bakoitzak zehaztutako jakintza-arloaren arabera. Batzuetan, zehaztutako arloa ez zetorren bat alegatutako merezimenduekin, eta, orduan, eskatzaileari galdetu zitzaion zein arlotan aurkeztu nahi zuen bere eskaera.

Binaka ebaluatu ziren, baina banan-banan eta bereiz. UNIQUALeko langileek, ebaluazio-aldian, irakasle eta ikertzaileek adierazi eta justifikatutako merituak argitzeko beharrezko zen informazio guztia bidali zioten ebaluatzaileei.

Eskaeren lehen ebaluazioa egin ondoren, ebaluazio-batzorde bakoitzak bilera egiteko eguna eta ordua zehaztu zen, 2010eko apiril, maiatz eta ekainean. Bost eskaera baino gutxiago zeudenean, bilerak on-line egin ziren. Bileraren ondorioz txosten bakarra eta adostua egin zen ebaluatu beharreko eskabide bakoitzerako.

EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarriak lortzeko III. Deialdian, 66 espediente ebaluatu ziren A eta B mailetan, eta 63 lagunek C tartea eskatu zuten. Eskatzaile batek uko egin zion bere eskaerari bere espedientea ebaluatua izan baino lehen, eta, horrez gain, 9

lagunen eskaera atzera bota zen, UNIQUALek eta EHUko errektoreordetzak egiaztatu baitzuten interesdunek ebaluazio positiboa lortu zutela aurreko deialdian, eta, hortaz, eskaerok ezin ziren izapidetzeko onartu, III. Deialdiko Bigarren Oinarriko 3. atalaren aurkakoa baita hori.

**2.6. taula-** III. Deialdian lortutako emaitzak.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 3 | 0 |
| **A1** | 1 | 4 | 20 |
| **B3** | 3 | 5 | 37.5 |
| **B2** | 5 | 5 | 50 |
| **B1** | 43 | 23 | 65.15 |
| **C2** | 27 | 9 | 75 |
| **C1** | 121 | 9 | 93.07 |




**2.1. irudia.** Lortutako tarteen banaketa.

## EMAITZAK CAMPUS BAKOITZEAN

### Bizkaiko Campusa

Bizkaiko Campusean 81 eskatzaile aurkeztu ziren. 2.7. taulan, tarte bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dira.

**2.7. taula.** Bizkaiko Campusean tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu zuten.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 1 | 0 |
| **A1** | 0 | 1 | 0 |
| **B3** | 0 | 3 | 0 |
| **B2** | 2 | 2 | 50 |
| **B1** | 26 | 13 | 66.66 |
| **C2** | 14 | 5 | 73.68 |
| **C1** | 71 | 5 | 93.42 |




**2.2. irudia.** Bizkaiko Campusean lortutako tarteak (%).

## Gipuzkoako Campusa

Gipuzkoako Campusean 35 eskatzaile aurkeztu ziren. 2.8. taulan, tarte bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dira.

**2.8. taula.** Gipuzkoako Campusean tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu zuten.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 2 | 0 |
| **A1** | 1 | 2 | 33.33 |
| **B3** | 2 | 2 | 50 |
| **B2** | 2 | 2 | 50 |
| **B1** | 10 | 8 | 55.55 |
| **C2** | 6 | 2 | 75 |
| **C1** | 8 | 0 | 100 |




**2.3. irudia.** Gipuzkoako Campusean lortutako tarteak.

## Arabako Campusa

Arabako Campusean 22 eskatzaile aurkeztu ziren. 2.9. taulan, tarte bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dira.

**2.9. taula.** Arabako Campusean tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu zuten.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 0 | -- |
| **A1** | 0 | 0 | -- |
| **B3** | 1 | 0 | 100 |
| **B2** | 1 | 1 | 50 |
| **B1** | 7 | 2 | 77.78 |
| **C2** | 7 | 2 | 77.78 |
| **C1** | 20 | 1 | 95.24 |




**2.4. irudia.** Arabako Campusean lortutako tarteak.

## EMAITZAK EBALUAZIO-BATZORDEKA

### Ezagutza Teknikoen Batzordea

Ezagutza Teknikoen Batzordeak 44 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.10. taulan jasotzen dira.

**2.10. taula.** Ezagutza Teknikoen Batzordeari dagozkion emaitzak.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 0 | -- |
| **A1** | 0 | 1 | 0 |
| **B3** | 1 | 0 | 100 |
| **B2** | 1 | 0 | 100 |
| **B1** | 17 | 5 | 77.27 |
| **C2** | 7 | 2 | 77.78 |
| **C1** | 41 | 0 | 100 |




**2.5. irudia.** Ezagutza Teknikoen Batzordean lortutako tarteak.

## Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak

Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientzien Batzordeak 32 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.11. taulan jasotzen dira.

**2.11. taula.** Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientzien Batzordeari dagozkion emaitzak.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 1 | 0 |
| **A1** | 0 | 1 | 0 |
| **B3** | 0 | 3 | 0 |
| **B2** | 2 | 1 | 66.67 |
| **B1** | 8 | 7 | 53.33 |
| **C2** | 8 | 3 | 72.73 |
| **C1** | 26 | 3 | 89.66 |




**2.6. irudia.** Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientzien Batzordean lortutako tarteak.

<u>**Giza Zientziak**</u>

Giza Zientzien Batzordeak 7 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.12. taulan jasotzen dira.

**2.12. taula.** Giza Zientzien Batzordeari atxikitako eskatzaile-kopurua, lortutako tartearen arabera.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 0 | -- |
| **A1** | 1 | 1 | 50 |
| **B3** | 2 | 0 | 100 |
| **B2** | 2 | 0 | 100 |
| **B1** | 3 | 0 | 100 |
| **C2** | 3 | 0 | 100 |
| **C1** | 4 | 1 | 80 |




**2.7. irudia.** Giza Zientzien Batzordean lortutako tarteak.

<u>**Zientzia Esperimentalak**</u>

Zientzia Esperimentalen Batzordeak 41 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.14. taulan jasotzen dira.

**2.13. taula.** Zientzia Esperimentalen Batzordeari dagozkion emaitzak.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 0 | -- |
| **A1** | 0 | 0 | -- |
| **B3** | 0 | 1 | 0 |
| **B2** | 0 | 2 | 0 |
| **B1** | 11 | 8 | 57.89 |
| **C2** | 6 | 4 | 60 |
| **C1** | 37 | 4 | 90.24 |




**2.8. irudia.** Zientzia Esperimentalen Batzordean lortutako tarteak.

<u>**Medikuntza- eta Osasun-zientziak**</u>

Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordeak 14 eskaera ebaluatu zituen. Emaitzak 2.14. taulan jasotzen dira.

**2.14. taula.** Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordeari dagozkion emaitzak.

| TARTEAK | Lortutako tarteak | Ukatutako tarteak | (%) |
|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 1 | 0 |
| **A1** | 0 | 1 | 0 |
| **B3** | 0 | 1 | 0 |
| **B2** | 0 | 2 | 0 |
| **B1** | 11 | 3 | 78.57 |
| **C2** | 3 | 3 | 100 |
| **C1** | 14 | 1 | 92.86 |




**2.9. irudia.** Medikuntza- eta Osasun-zientzien Batzordean lortutako tarteak.

**2.15. taula.** Tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu duten, batzordeka banatuta.

| Tartea | IRAKASK. TEKNIKOAK | GIZARTE-ZIENTZIAK | GIZA ZIENTZIAK | ZIENTZIA ESPERIMENTALAK | MEDIKUNT. ZIENTZIAK |
|---|---|---|---|---|---|
| **A2** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **A1** | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| **B3** | 1 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| **B2** | 1 | 2 | 2 | 0 | 0 |
| **B1 C2 C1** | 5 | 1 | 1 | 2 | 0 |
| **B1 C1** | 9 | 5 | 0 | 5 | 3 |
| **C2** | 7 | 8 | 3 | 6 | 3 |
| **C1** | 41 | 26 | 4 | 37 | 13 |
| **TARTERIK EZ** | 0 | 3 | 1 | 4 | 1 |

EMAITZAK, GENEROAREN ARABERA

**2.16. taula.** Tarte bakoitza zenbat eskatzailek lortu duten, generoaren arabera banatuta.

| TARTEA | GIZON KOP. | EMAKUME KOP. |
|---|---|---|
| **A2** | 0 | 0 |
| **A1** | 0 | 1 |
| **B3** | 2 | 1 |
| **B2** | 4 | 1 |
| **B1 C2 C1** | 8 | 4 |
| **B1 C1** | 12 | 10 |
| **C2** | 18 | 9 |
| **C1** | 71 | 50 |
| **TARTERIK EZ** | 5 | 4 |




**2.10. irudia.** Histograma: gizonak eta emakumeak guztira.

## 2.4. EBAZPENA

Bidalitako ebazpenak banakakoak ziren, eskabide bakoitzerako eginak, eta aitortutako puntuazio eta tarteari buruzko informazioa ematen zen, tartea zein egunetan esleitu zen zehaztearekin batera. Halaber, tarte jakin batean ebaluazioa negatiboa izan zen kasuetan, arrazoi zehatzak azaldu ziren ebazpenetan.

Lehendabizi, 2010eko uztailaren 15ean, C tarteko ebazpenak igorri ziren, eta, aurrerago, 2010eko abuztuaren 11n, A eta B tartetakoak.

## 2.5. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

Berraztertzeko errekurtsoak aurkeztu ziren kasuetan, UNIQUALeko langileek eta Ebaluazio Batzordeak espediente osoa berrikusi zuten; eskatzailearen alegazioak aztertu, eta horren gaineko txosten berria egin zuten. Zuzendariak, Batzordearen txostena aztertuta, berraztertzeko errekurtsoa ebatzi zuen, eta ebazpena interesdunari jakinarazi zitzaion, errekurtsoa aurkeztu zuenetik ahalik eta eperik laburrenean; nolanahi ere, ebazteko epeak luzatu egin ziren ezinbestean, errekurtso-egile bakoitzaren espedientea osorik eta zehatz-mehatz aztertu baitzen.

Osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko ebazpenen aurka, berraztertzeko 8 errekurtso aurkeztu ziren; C tartekoak 2, eta A eta B mailetakoak 6. Ebaluazio Batzordeek errekurtso guztiak atzera bota zuten.

**2.17. taula.** Berraztertzeko errekurtsoak jakintza-arloka banatuta.

| Jakintza-arloak | ERREKURTSO KOP. |
|---|---|
| Zientzia Esperimentalak | 2 |
| Medikuntza- eta Osasun-zientziak | 0 |
| Irakaskuntza Teknikoak | 4 |
| Giza Zientziak | 0 |
| Gizarte Zientziak | 2 |

## I. ERANSKINA: ARAUTEGIA

- ☐ 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- ☐ 138/2006 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren estatutuak onartzen dituena.
- ☐ 209/2006 DEKRETUA, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarriei buruzkoa.EHUren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 22an hartutako ERABAKIA, Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari osagarrien esleipena eta merituen ebaluazioa eskatzeko Deialdia onetsi eta argitaratzea erabakitzen duena.
- ☐ ERABAKIA, 2009ko azaroaren 18koa, EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurarena, III. Deialdia onartu eta argitaratzeko agintzen duena, hain justu ere merituen ebaluazioa eta irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalaren ordainsari osagarrien esleipena eskatzeko.
- ☐ EBAZPENA, 2008ko abenduaren 15ekoa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendariarena, abenduaren 10ean Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako Administrazio Kontseiluak onarturiko Eukal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen Osagarri Gehigarriak Ebaluatzeko eta Esleitzeko Protokoloa jakinarazten duena.
- ☐ 2008ko abenduaren 15ean Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren zuzendariak emandako Ebazpenaren AKATSAK ZUZENTZEA. Horren bidez, EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Osagarriak ebaluatzeko eta esleitzeko Protokoloa argitaratu zen, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak 2008ko abenduaren 10ean onartua.
- ☐ EBAZPENA, 2010eko martxoaren 16koa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren zuzendariarena; Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarrizko ordainsari-osagarriak

esleitzeko Ebaluazio Batzordeen kide batzuk kargutik kentzea eta beste batzuk izendatzea xedatzen duena.

- 30/92 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.